

# AZOKAK LABORARIEN TOPAGUNEAK

Gure laboraria edo baserritarra berez oso peri-zalea degu, azokarako griña zañetan daramaki eta peri-eguna egokitzen danean, aal badu beintzat, ospatzen duten errira alderatuko da utsegin gabe eta buelta koxkor ba emango du ingurutik. // Nere iritziz merkatu egunak txit bereziak dira gure baserriko giz-emakumentzat. // Esaten oi duten bezela, beraiantzako egunik obeenak iru dira: "ogia erretako eguna, txerria ildako astea eta ezkonduetako urtea" eta nik zerrenda oni gañeratuko nioke iñungo beldurrik gabe "merkatu eguna" ezpairik gabe.

Izenburuan diodanez, peria iaten omen da baserritarren biltoki bat. Are eta geiago esango nuke nik, batez ere laborariena, baiña gaurko egunez kaletarrok galanki parte artzen degu ekintza oietan. // Gizarte elkartzeko oni dagokionez, aitatu gabe ezingo nun utzi: azoka baserritarren bizimoduaren atal garrantzitsu bat da. // "Abarkadunak" (ainbat bider baserritarra ez esateagatik) aprobetxatzen du beste etxeetako berriak jakiteko. Alkartu egingo zaigu bere moduko beste gizaseme edo emakumezko batekin eta jakabo!, solasaldi edo itz aspertu bat izango dute. // Etxeko kontu guztiak motza dala izketarako; Soroko emaitzak nolakoak izandu diran, ukulluko berriak, eta abar luxe bat, aitatu gabe ez tute aide egingo. Orrela alkarren berriak esateko aurrez-aurre bide

errea billatuko dute azoka egunetan. Abek egunkariaren bearrik ez tute.

Bestetik, baserritarrak perira beste asmoak eramango ditu etxeko jardueraren arabera: abelgintzatik ogibidea ateratzen baldin badu, orretara joko du beste bidetan galdu gabe, au da, abereak dauzkaten alderdira eta or baztar guztiak miatuko ditu bere gustoko edo premizko beia lortu arte. // Itzegingo du beia jabearekin, galdera egingo zizka ¡milla! nolako bei klase dan ikasi arte.

Peri-egun auetan beste gertakari eder bat gertatzen zan orain zearo galduta deguna: bertso saltzailearen agerpena bere bertso paperekin. // Kantatuko zitun oltza gañean jendeak aditu ziezaiola eta orrelako moduz gero saldu zitzan esandako bertso paperak. // Oietako bertso paper batekin agurtuko naiatzen irakurlea eta amaitutzat emango det gaurko lana. San Ferminetako perian gertatua dana oso egokia dala derizkiok:

"Iruñeko Ferietan,  
iragana San Ferminetan,  
eun zaldi arribatu  
Andaluziatik tropan:  
merkatu eder bat zeutan  
zaudelarik bi lerrotan.

**Joanes Otxalde (1814-1897)**  
**JOXE IÑAXIO SALABERRIA**

## NEKEAK

Azpaldidanik begira nengoz  
gizon jokabideari,  
altsuak altsu, pobreak pobre  
lur ez bardintasunari;  
gizaldietan era orretan  
ari dan gizarteari,  
galdezka nago errai-karraziz  
zer ari dan gizonari.

Nungo, norengo eskubideaz  
pilla ditu onddusunak,  
ugerrak lurrez jango deutzazan  
metal aberastasunak;  
bide ortatik agintzen eban  
jankerizko altasunak,  
bereak eginda nauskeri gisa  
sortu ez bardintasunak.

Nekeak neke, samiñak samin,  
gizona zuzperten doa,  
injustiziko bide ortatik  
askatu nai du gogo;  
dei egin arren ez du nai entzun  
zapaldu, arin, arroa,  
mingarririkan ezer ba'dago.  
au bai, zoritxarrekoa.

Urteak urte, goseak gose,  
arroak ano bidea,  
pobreak pobre, negarrez, sarri,  
urdail samiñez betea;  
palazioan jauntxoak dagoz  
indarrez dau boterea,  
pobreak barriz txabola zarra  
bere bizitza-etxea.

**PAULIN**